

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko otsailaren 13tik 17rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: BPGd



Datuaren analisisa

Euroguneko ekonomia % 0,4 hazi zen 2016ko laugarren hiruhilekoan, merkatuak espero zuena eta aurreko hiruhilekoan lortutako datua baino dezima bat gutxiago. Urte arteko hazkundera % 1,7koa izan zen, dezima bat gutxiago iazko epe berdinean izandakoaren aldean. Herrialdeei begira, Italia (% 0,2) eta Espainia (+% 0,7) izan dira hiruhilekoan Barne Produktu Gordinaren (BPGd) hazkunde-erritmo txikiena eta handiena izan duten Euroguneko ekonomiak.


Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Eurogunek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketara eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztikoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: ZEW SENTIMENDU EKONOMIKOA



Datuaren analisisa

Alemaniko Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea 16,6tik 10,4ra jaitsi zen otsailean, merkatuak aurreikusi zuen 15,0rainoko jaitsieraren oso azpitik geratzeraino. Eurogunean ZEW indizea 23,2tik 17,1era jaitsi zen, merkatuak espero zuen 22,3ko datuaren oso azpitik. Sentimendu ekonomikoaren jaitsiera zakar horren jatorria industria-ekoizpenaren, xehekako salmenten eta esportazioen emaitza negatiboak izan dira. Gainera, ZEWko presidentearen arabera, “Brexitak, AEBetako etorkizuneko politika ekonomikoak eta Europan -Alemania, Frantzia eta Holandan- egingo diren hauteskundeek eragin duten ziurgabetasun politikoaren” ondorio izan da.


Adierazlearen azalpena

Alemaniko Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen “sentimendu ekonomiko” islatzeko balio du. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: AEB: BOJ KPI



Datuaren analisia

Urte arteko inflazio-tasa % 2,5ekoa izan zen urtarrilean, aurreko hileko irakurketaren lau dezima gaitetik, eta, beraz, bere mailarik onena 2012ko martxotik. Abenduari dagokionez, 2017ko lehen hilabetearen prezioek 2013ko otsailaz geroztiko gorakada handiena izan zuten, hileko inflazio-tasa % 0,6koa izan baitzen, aurreko hileko datuaren hiru dezima gaitetik. Izan ere, energiaren balioa % 4 garestitu baitzen.


Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA:TXINA:BOJ KPI



Datuaren analisia

Txinako inflazioak gora egin zuen urtarrilean, eta azken bi urteotako igoyerarik handiena lortu zuen, batik bat Txinako Urteberri-egunaren eta energiaren prezioen ondorioz. Herrialdeko kontsumoko prezioen indizea urte arteko % 2,5 igo zen urtarrilean, abenduan baino lau dezima gehiago. 2014ko maiatzaz geroztik lortzen ez zen maximoa; erakunde ofizialaren arabera, elikagaien eta garraioaren prezioen igorerak edo Txinako Urteberri-egunak erakarritako turismoak eragindakoa.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
02/20	Japonia	Balantza komertziala	-¥622.6b
02/20	Alemania	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
02/20	Espainia	Balantza komertziala	--
02/20	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	--
02/21	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
02/21	Japonia	Hileko industria-indizea	-% 0.2
02/21	Frantzia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	--
02/21	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	--
02/21	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	--
02/21	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	--
02/21	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	54.6
02/21	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	55.5
02/21	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
02/22	Alemania	IFO enpresen egoera	--
02/22	Italia	Urte arteko EBko KPI harmonizatua	--
02/22	Erresuma Batua	Urte arteko BPGd	--
02/22	Eurogunea	Urte arteko KPIa	--
02/22	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.55m
02/22	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
02/23	Japonia	YoY IPP zerbitzuak	% 0.5
02/23	Japonia	CI lider indizea	--
02/23	Japonia	Aldibereko Indizea	--
02/23	Alemania	Hiruhileko BPGd SA	--
02/23	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	--
02/23	Frantzia	Enpresen konfiantza	--
02/23	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
02/23	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
02/23	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
02/24	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	--
02/24	Espainia	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	--
02/24	Italia	NSA YoY agindu industrialak	--
02/24	Erresuma Batua	Etxea erosteko BBA maileguak	--
02/24	Italia	Sentimendu ekonomikoa	--
02/24	Italia	Fabrikazioaren konfiantza	--
02/24	Italia	Kontsumitzailearen konfiantza-indizea	--
02/24	Estatu Batuak	Etxebizitza berrien salmenta	573k
02/24	Estatu Batuak	Sentimendua Michigango Unibertsitatea	96.0
02/24	Alemania	YoY inportazio prezioen indizea	--

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK

Munduko burtsa nagusiek itxiera positiboak izan zituzten. Aste honetan, Trumpek iragarritako erreformak eta Yellenen agerraldia izan dira inbertitzaileen arreta-gunea. AEBetako desarautze egoerak hobera egin zuen, eta, ondorioz, merkatuek euren baikortasun erreflazionista berreskuratu zuten hein batean. Gainera, Trumpek etorkizunean zerga-arloko murrizketak iragarriko dituelako itxaropenak indize estatubatuarrek maximo berriak lortzea eragin zuen. Yellenen agerraldiak ez zuen nobedade garrantzitsurik ekarri. Presidentearen arabera, ez ginateke zuhur jokatzeko ariko tasak "astiroegi" handitzen baditugu, momenturen batean igoerak azkartu beharko lirakekeelako, eta horrek merkatuak desorekatzeko arriskua ekarriko lukeelako. Yellenen hitzaldiak goraka bultzatu zuen AEBen kurba, baita dolarra ere. Gainera, Errenta Aldakorrean ere nolabaiteko eragin positiboa izan zuen, batez ere finantza-sektorean. Europa, bestalde, merkatu estatubatuarren baikortasunaz kutsatu zen, bai eta Europar Batasunak iragarri zuen aurreikuspen ekonomikoen hobekuntzaz ere. Erakundea Eurogunearekin baikorago agertu zen bere txostenean, herrialde guztietako BPGd-aren hazkunde positiboak aurreikusten baititu 2017 eta 2018rako. Gainerako merkatuei dagokienez, itxiera negatiboa Japonian, dollarraren aurrean yenak izan zuen balio-handitzearen ondorioz, eta positiboa oro har herrialde gorakorretan.

ERRENTA FINKOIA:

Bonu europarren errentagarritasunak behera egin zuten. EBZk diru-pizgarriak kentzeko presarik ez zuela berretsi zuen, eta horrek tasek beherantz egitea eragin zuen. 10 urterako bonu alemanaren errentagarritasuna 2 op jaitsi zen, % 0,30eraino. Bonu espainiarren mugimenduak, aldiz, nabarmenagoak izan ziren; 10 urterako bonua, esaterako, 7 op jaitsi zen (% 1,64raino). Hori dela eta, arrisku-saria ia 5 op estutu zen, 133 puntutaraino. AEBetan, Yellenen adierazpenek eta kontsumoaren eta inflazioaren ustekabeko igoerek tasen gorakada eragin zuten, eta 10 urteko bonuak % 2,41ean itxi zuen, 1 op igo ostean. Kredituak, bestalde, bere diferentzialak estutu zituen.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Yellenen hitzaldiak eta Frantzia bizitako arrisku politikoak eragina izan zuen Europako dibisan; % 0,25eko balio-galtzea izan baitzuen dollarraren aldean. Yena oraindik balioa irabazten ari da euroaren aldean. Lehengaiak dagokienez, petrolioaren prezioa % 1,63 jaitsi zen, nahiz eta LPEEK murrizketak handitzeko gogoaz azaldu. Urrearen balioa, bestetik, % 0,11 igo zen, 1234,95 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
MSCI WORLD (Local)	1.419,99	1,15	4,09
IBEX 35	9.500,30	1,30	1,58
DJ EURO STOXX 50	3.308,81	1,16	0,56
DJ STOXX 50	3.073,17	1,12	2,08
FTSE	7.299,96	0,57	2,20
S&P 500	2.351,16	1,51	5,02
Dow Jones	20.624,05	1,75	4,36
NASDAQ	5.838,58	1,82	8,46
NIKKEI 225	19.234,62	-0,74	0,63
MSCI EMERGENTES (Lo)	50.634,02	0,63	6,26
MEXBOL	47.164,71	-1,32	3,33
BOVESPA	67.748,42	2,46	12,49
SHANGHAI	3.352,96	0,17	3,18
Rusia Rts Moscu	1.152,21	-1,03	-0,01

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	2017 ald
ALEMANIA 2 URTE	-0,81	-0,02	-0,04
ESPAINIA 2 URTE	-0,24	0,03	0,04
AEB 2 URTE	1,19	0,00	0,00
ALEMANIA 10 URTE	0,30	-0,02	0,09
ESPAINIA 10 URTE	1,64	-0,07	0,25
AEB 10 URTE	2,41	0,01	-0,03
ALEMANIA 30 URTE	1,09	-0,02	0,14
ESPAINIA 30 URTE	2,96	-0,07	0,35
AEB 30 URTE	3,02	0,02	-0,04
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	73,83	-1,04	1,79
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	297,58	-2,58	8,88

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2017
Dolarra / Euroa	1,06	-0,25	0,94
Yena / Euroa	119,76	-0,61	-2,71
Libera / Euroa	0,86	0,42	0,43

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2017ko % Ald
Petrolio (Brent)	55,09	-1,63	-0,58
Urrea	1.234,95	0,11	7,18

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.